



ESLEIPEN-IRAGARKIA

2021eko martxoaren 10eko Gobernu Batzordearen akordioaren arabera, hona hemen **BARALDE KALEKO ZENBAKIRIK GABEAN DAGOEN HIGIEZINA ALOKATZEKO ETA UDAL-IGERILEKUETAKO OSTATU-JATETXEA IZATEKO** lehiaketaren deialdia, datu hauen arabera:

1.- Erakunde esleitzaila: datu orokorrak eta informazioa eskuratzeko datuak:

- a) Erakundea: **Alegria-Dulantziko Udala.**
- b) Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko:
 - 1.- Tokia: **Alegria-Dulantziko udaletxea.**
 - 2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Telefono-zenbakia: **945-420027.**
 - 5.- Telefax-zenbakia: **945-420394.**
 - 6.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
 - 7.- Kontratugilearen profilaren Interneteko helbidea: www.contratacion.euskadi.eus eta www.alegria-dulantzi.eus
 - 8.- Dokumentazioa eta informazioa eskuratzeko epemuga: **eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 3 egun lehenago.**
- c) Espediente-zenbakia: **04/2021.**

2.- Kontratuaren xedea:

- a) Kontratu-mota: **errentamendua.**
- b) Xedearen deskribapena: **udal-igerilekuetako taberna-jatetxearen errentamendua.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1.- Helbidea: **Baralde, z.g.**
 - 2.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Errentamendu-kontratuaren epea: **2 urte.**
- e) Luzapen-onarpena: **bai.**

3.- Izapidetzea eta prozedura:

- a) Izapidetzea: **arrunta.**
- b) Prozedura: **irekia.**
- c) Esleipen-irizpideak: **oro har eskaintzarik onena egiten duen lizitatzailleak lortuko du esleipena, baldintza-agiri honetan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, haren prezioari soilik erreparatu gabe.**

Hauetara eskaintza balioesteko irizpide objektiboak (eta kontratuaren xedeari lotutakoak):

- Errentamendu-kanona: gehienez, 45 puntu.
25 € bakoitzeko + dagokion BEZ igoera: 1 puntu.
- Jabetzan proposaturiko hobekuntzak:
 - Gehienez, 20 puntu, arrazoi hauengatik:
Udalaren interesekotzat jotzen diren eta instalazioan gizarte-, kultura- eta kirol-bizitza sustatzen duten jarduera ekonomikoak egitea. 200 €-ko hobekuntza bakoitzeko, 2 puntu. Irizpide hori balioesteko, lizitatzailleek oinarritzko memoria bat aurkeztu beharko dute; bertan, egutegi bat zehaztu beharko dute, garatu beharreko jardueren gutxi gorabeherako datak adierazita, baita jardueren deskribapen laburra eta esku-hartze bakoitzaren benetako zenbatekoa aurkeztu ere. Iradokitako eta Udalak onarturiko jarduera bakoitza gauzatuko ez balitz, justifikaturiko inolako arrazoirik gabe, bakoitzari dagokion zenbatekoa ordaindu beharko dio Udalari.



- o Gehienez, 35 puntu, arrazoi hauengatik:
 - Kartan, gutxienez, 2 plater konbinatu badago (zehaztu platerak):
 - o Bakarrik asteburu eta jaiegunetan: puntu 1.
 - o Egunero: 3,5 puntu.
 - Kartan, gutxienez, 3 plater konbinatu badago (zehaztu platerak):
 - o Bakarrik asteburu eta jaiegunetan: 2,5 puntu.
 - o Egunero: 5 puntu.
 - Kartan, gutxienez, 2 plater konbinatu (zehaztu platerak) eta eguneko menua (lehen eta bigarren platerak, azkenburukoa eta edaria) badaude:
 - o Bakarrik asteburu eta jaiegunetan: 4 puntu.
 - o Egunero: 6 puntu.
 - Kartan, gutxienez, 3 plater konbinatu (zehaztu platerak) eta eguneko menua (lehen eta bigarren platerak, azkenburukoa eta edaria) badaude:
 - o Bakarrik asteburu eta jaiegunetan: 5,5 puntu.
 - o Egunero: 7 puntu.
 - Oilasko errea, entsalada eta patatak emateko zerbitzua:
 - o Bakarrik asteburu eta jaiegunetan: 4 puntu.
 - o Egunero: 7 puntu.
 - Kafea emateko zerbitzua: 14 puntu.
 - Izoziak emateko zerbitzua: 7 puntu.

Berdinketa egonez gero, puntuaziorik handiena lortu duten eskaintzen arteko zozketa egingo da.

4.- Errentamenduaren zenbatekoa:

Zenbateko garbia: **1.000 euro**. Ehuneko 21eko BEZa: **210 euro**. **Zenbatekoa guztira: 1.210 euro urtean.**

5.- Kontratistaren baldintza zehatzak:

Enpresariaren kaudimena:

- **Enpresariaren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** bide hauen bidez egiaztatuko da:
 - a) Finantza-erakundeen adierazpen egokiak edo, hala badagokio, lanbide-arriskuengatik kalte-ordainen aseguruaren egiaztagiria.
 - b) Negozio-bolumen orokorrari buruzko adierazpena eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-eremuko negozio-bolumenari buruzkoa, gehienez ere azken hiru ekitaldiei buruzkoa, enpresariaren jardueren sorrera- edo hasiera-dataren arabera, negozio-bolumen horren erreferentziak izanez gero.
- Zerbitzu-kontratuetan, enpresarien **fidagarritasun teknikoa** bide hauen bidez egiaztatuko da:
 - a) Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adierazita. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatua denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren adierazpenaren bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean helaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio-organoari.
 - b) Enpresako urteko batez besteko langile-kopuruari buruzko eta azken hiru urteetan izan dituen zuzendaritza-taldeen garrantziari buruzko adierazpena, dagozkien justifikazio-agiri guztiekin.
 - c) Enpresaburuaren eta enpresako zuzendaritzako langileen titulazio akademikoak eta profesionalak, eta, bereziki, kontratua gauzatzeko ardura duten langileenak eta zerbitzua emateko ardura duten begiraleenak.



6.- Eskaintza-aurkezpena:

- a) Aurkezteko epemuga: **hilabete, iragarki hau kontratugilearen profilean argitara eman eta hurrengo egunetik aurrera.**
- b) Euskarria: **papera.**
- c) Aurkezteko tokia:
 - 1.- Bulegoa: **erregistro orokorra.**
 - 2.- Helbidea: **Herriko plaza 1.**
 - 3.- Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
 - 4.- Helbide elektronikoa: aalegria.general@ayto.araba.eus
- d) Lizitatuzaileak eskaintza indarrean izan beharreko epea: **hilabete.**

7.- Eskaintza-irekiera:

- a) Deskribapena: **kontratazio-mahaia.**
- b) Helbidea: **Herriko plaza 1.**
- c) Udalerria eta posta-kodea: **01240 - Alegria-Dulantzi.**
- d) Eguna: **proposamenak aurkezteko epea amaitu ondorengo hirugarren egun balioduna.**

Alegria-Dulantzin, 2021eko martxoaren 16an
ALKATEA

Izpta.: Joseba Koldo Garitagoitia Odria